

LA VIEJA QUE PASÓ LLORANDO



M- 60296  
F- 61082

AFJ  
27223

# NEGAREZ IGARO ZAN ATSUA

UDABARIKO ASELIA,

W. B. YEATS OLERKARI ERINDARAREN

«KATHLEEN - NI - HOWLIHAN» 'TZAZKUA

---

*Sota - Aburto'tar Imanol'ak  
idatzija.*

*Altuna'tar Joseba'k  
euzkeralduba.*



“Gau baten, ames argi ta garbija egin neban, benetako amesik ezirudijana. Basetxe aberats baten baruba ikusi neban: berton, laratza su ederagaz eguan, eta beronen inguruban, laster egingo zan ezkontzatzazko bariketea. Basetxe baketsu atan ikusi neban baltzez jantziriko atso baten irudija agertuten zala. Eireann (Irlanda) berbera zan, abesti asko abestu, edesti ugari esan-erazo ta bere matetasunaeren gixon askok eta askok erijotz-bidera jo egin daben Kathleen-ni-Howlihan berbera.”

*Lady Gregory'ri W. B. Yeats'ek zuzendutako idazkija, bere “Kathleen-ni-Howlihan,”etzaz itz-egiñaz.*



## ANTZEZNOTIÑAK

DEADAÑ'EN ABOTSA.

INTXAURAGA'TAÑ EUSTAKI, baseñiñañ aberatsa.

GANBOA'RENEKO JASONE, bere emastia.

BURINTXA, semerik gastiena.

GORKA, seme nagusija,

MIREN-BIJOTZA emastegeyagaz ezkonduko dana.

MOMOITIO'RENEKO GERGORETXU, ezkonduata egon gurako eban neska zaña.

GEÑIKAITZ'ENEKO SIMONE, ezkonduata egon gurako eban andra alañouna.

GOPEGI'NEKO DOMEKE, ezkongai egon gurako eban andra ezkonduba.

NEGAÑEZ IGAROTEN DAN ATSO GELTSUBA.

Mendigoxaliak, baseñiko neska gastiak, mutikuak eta neskatuak.

\* \* \*

Antzeztaldija egiñen da Dendariñe baseñiko *Ganboa* deretxon basetxian.





# DEADAŔ OLEŔKARI BASEŔITĀŔAREN

## ABOTSA

---

(ILUN ARGÍ-ERAGOTZA)

—Neu naz DeadaŔ, oleŔkari baseŔitaŔa, eŕijari ta beronen bakaŔtasunari maŕetasun sutsuba dautsa-dana...

Mendi-mendijan bixi naz, tontoŕetarantz igoten nazanetan, ixaŔ-bidera joten dodalako. Eta ixaŔ-bidia da neu-lako ameslarijen bidia...

IlunabaŔ ixiletan, eŕekatxuben moŕ-moŕa, bakaŔ-bakaŕik auŕkitzen dan txorijaren abestija, galburubai makuŕ-erazoten dautsen axia, ardiyen txiliña, uŕutiko artzañaren abestija, juale (kanpai) zaŕaren ots ituna... ots leunak, apalak, laño-zatijak dirudijenak, saŕi entzun ixaten dodaz...

Burubagaz bakaŕik egon nazanetan be, luŕak bere abestija egin daust, eta lo dagozan basetxietatik ur-teten dan ke ariñian edesti itunak eta alai-pozkoŕak irakuŕi dodaz...

Laster amañuten dan bañe-algarea entzun egin dot, arin legoñtuten dan malkua ikusi dot... loñez ta nekez bixi diran gixonen ixerdi-tantak bañe-algaraok eta malkuok diralako. Gure bixitz au gitxika-gitxika amañuten da, idoroten (topetan) eztaun itxaropena joranez, luñra atzapañkatuten daun biñañtian. Eta luñra atzapañka egiñiaz, iñlobija bera egin daruagu!

[Erijotzak dei-egiñen dausku ta beragana guaz, dan-dana aiztuta. ¡Gixonak batu ebazan bijotz-ikarak ba-kañik bixi-ixaten dira geu iñda gero!

Neuk jabon (gorde) nebazan, bixitz onetan ikusi neuzan malkuak eta iñribañiak, eta geruago begiratu dautsedanian, lora zimelduben usaña daukela egingo neuke... idazti-bañuban jaboten diran lora zimeler antzera...

Orixe dala-ta, olako edesti bat gauñ zuben auñera ekañi gura dot... Oñretarakoxe jatsi naz mendi-tontoñ-etatik, azkenengo mirusaya egazka ebiñan añtian.

Ipuin bat edestu gura dautzubet, baseñi-ipuña ber-au. Bertan entzungo dozube, gixakumien abots-añtetik urteten dan abenda-didaña...

---

Udabañija da... Oñiñlako argi gozuak añatsaldia argi-futen dau... Geldi ta ixilik dagon basua eguzkijak uñez-tetan dau... Lora zuriz beterik dagozan sagañondo txi-

kijak daukezan aldapa baten, Dendariñe baseñi alaya eskutetan da...

¡Dendariñe, Dendariñe, baseñi zoragañija zarana, basetxe zuri-mordo galanta daukazuna, zerura igoten dan kanpantoretxuba dozuna, luñera makuñtuten diran telatu goñi-nekatubak dozuzana, pagadi-peko gerixa ixilian mañetasuna eskutetan dozuna... bake-bakian bixi ixanaz, eñomeritik datoñen pilarmonika-eresijak artegatuten zañuban baseñi zoragañijori...

---

¡Baseñijari begiratu dagijogun, antziñan toñetxe añua zan besetxe baten atañtez-ziañ! Ganboa ereisten dautsae... Urtiak baltziñu dautsaezan añizko ormeak gomutarazoten dauskube, gure abendea abenda zintzua zan aldi zorijontsuba...

Bere bañuban gauñ poz-alaya dago. Orain jayoten dan mañetasunez beterik dago gustija... Gorputz gaste bi alkañegaz batuko dira, gogo-egañija asetuteko...

Baña urundik datoñ abesti asañdarija, baltzez jantziriko atso bat igaro da negañez... ta beronen malko bat, iñontz-tanta bat bai'litzan, Ganboa basetxian lotu egin da...

¡Entzun ipuin au, iribañez asi ta negañez amañuten dan ipuña!...

¡Entzun Udabañiko asele au!...

(Abotsa ixilduten da. Antzeztokija argiz betelen da.)







## ANTZEZKI BAKARA

\* \* \*

Andiki-usaña daun basetxe sendo onen barubak erakusten dausku etxe edera dala. Zaren-zarez baltziuriko ari-metak ormak egiñen dabez, ta beronen ondoz igarokeran gogora etorñen yaku geure abenda au orain baño zinduagua zan aldi zorijontsuba. *Ganboa* dau ixena gure basetxiok, eta *Dendariñe* deritxon eta eguzkijak samurkiro joten daun baseñiko basetxiatarik senduena dogu berau. Aurian daukan ikuñdi aruak gomutarazoten dausku, antzin-antziñetiko oñarijak dauzala, Ganboa'taren odola baxen zarak diran oñarijak. Baña guk eztoqu orain olakorik ikusten, atarte zabalian aurkitzen garalako. Eskeñ-aldian dagon laratz batetik dingilizka, kiaz baltziutako pertza dago, azpijan txingar motelak dauzalarik. Arasa baten, aldeñezkan jarifa, suil, katilu ta lapiko garbi-distiratsubak agiri dira. Bazteñ baten, aiztuta bai'legon, goruba datza, berori eragiñen eutsona, itxuraz, il egin zan-eta. Eskumaldian ate bat dago, ta arantzago, ibi-

lijaren ibilijaz me-me eginda dagon arizko zurubija. Orman eskegiña, atia ta zurubi-artian, egur- ezko gurutza, ereñotz-adañ legoñ bategaz apainduta. Bañuko atia, andija ta zabala, idigiña dago, udabañiko egun argija ikusliai erakusteko. Basetxe -albuan bidia dago, ta urunago, margo ilun-samañ-dun mendijan, aldapa alaya ikusten da, lora zuriz bereriko sagañondo txikiz apainduta. Bañuko leyoetatik be basua ikusten da ederño, añañsaldeko argijagaz. Or-emen sakabanatuta, zaran andijak eta lugintza-tres-nak agiri dira, ta bazteñ baten galburu goñi-moltzua iltzurunetik digiliz. Bazkal-osteko orduba da ta dana dago geldi ta bakian.

Laratz-onduan, arki txikijan jezañña, etxeko jaun-na, Intxaunañagaña Eustaki deritxona, dago. Gañerdi-ko gixona da, galanta, luzia ta sendua. Eguzki-euri-jak jota, arpegi zimela dauka-ta, eztirudi ben-bene-tan emakumiaren semerik, luñian, euzko-luñian soñtu ta jayotako gixakumia baño. Izta-artian, 10 urte baño eztauzan semerik gastiena dauka. Mutiko au bizkoña ta bixija da ixan be. Oragañik *Burintxa* eristen dau-tsoe. Antzeztokiko beste aldian, mai txiki baten in-guruban, lau andra baseññañ ageñtzen dira: *Gopegi're-neko Domeke* (ezkonduba), *Geñikaitz'eneko Simone* (alañguna), ta *Momoitio'reneko Gergoretxu* (neska zaña). Irurak jezañña dagoz, ta zutik *Ganboa'reneko Jasone*, Eustaki'ren emastia. Lau emakumiok auñki-



tzen dira, mai-ganian dagozan janzkijak ikusi ta arakatuten. *Gorka*, etxeko seme nagusija, bijañ ezkonduko ei-da *Miren-Bijotza*'rekin, eta añaturiko andrak begiratzen dabezan gauzak egiten dabe, Jasone ta Eustaki'k erangeyari opalduten dautsoen añua.

---



## I ANTZERKIJA

*Eustaki, Burintxa, Jasone, Gergore, Domeke ta Simone*

DOM. ¡Gauza onek dira ederak! Añio dotorerik ba  
-dago bazteretan, dotoria da au gero!

JAS. (Año.) ¡Boooo...!

GER. (Zapijak daukazan kutxa bati begira.) Eta  
suñerako zapi txikijak be, izkijakin (letra-  
kin) ta gusti...

DOM. ¡Ezta egija ixango! (Kutxea artzen dau.)

GER. ¡Ixango ezta, ba! Baña umia; atzamar lodijaren  
loñatza bertan itxi dozu.

JAS. (Zapijai begira, destañez.) Onek baño amalau  
errial merkiaguak be bai-egozan, baña izkijak  
motzaguak eukezan.

DOM. (Zapijari begira.) ¡Onek dira bañegarikerijak!  
Izkijak diranik be eleuke iñok esango-ta.

SIM. Diru galantak kostauko yatzuzan eurok, ¿ezta?

JAS. (Año.) Ondiño be ba-daukadaz bankuan ogerle-  
koren batzuk, bada-ezpadan.

EUS. (Semiari.) Begira, mutil, ama arotuten duana  
gauza orek esaten yautsaezanian.

- BUR. Aña, ¿neu ezkondu nafenian be auxe berau jazo (pasauko) ete-da?
- GER. ¡Astegunetarako eropak be alako egalun edo puntilatxu politak ba-daukez!
- SIM. (Zotiñez.) ¡Ene bada-ta!
- DOM. ¿Eta bijaño jantzijak, ezkontzarako egiñak? ¡Onexek, onexek dira ikuskarriak benetan, jantzi ikuskaririk ba-dago beintzat!
- SIM. (Zotiñez.) ¡Oi!
- DOM. ¡Ene bada! Simone au zotinka (zizpuruka) dabil, ta sendo ibili be.
- GER. ¡Olakorik!
- JAS. Oñenbeste zizpuruz, ikarea be sartuko dausku beronek.
- BUR. (Alari.) ¿Zizpuruba zer ete-da?
- EUS. Andra alarñunai ta neska zarai urteten yaken zotin ituna (tristia.)
- SIM. ¿Zer egingo dot, ba? Auxe da, ixan be, andra alarñun gastientzat atsegin bakaña. Eta begi-aurian daukadazan gauza onekin zotin andijaguak urteten yataz, mañasunaz len baño geyago gogoratzen nazalako.
- JAS. ¿Mañetasuna esan dozu? Naitasuna bakañik dago onelako baseñijetan.
- BUR. (Alari.) ¿Eta mañetasuna zer da, aña?
- EUS. Ogei urte beteta gero, gixon eta emakume gustijoi elduten yakun elgoñija.

- JAS. ¿Baña oren gogo andija daukazube ezkontze-ko? (*Eustaki'k bañe-egiten dau.*)
- SIM. ¡Gogo-gogua bai bein!
- GER. ¿Eta geuk ez, ala? Zizpuru andijaguak bota biar'ko neukez neuk, ezkondu tia zer ete-dan be ezta kidan e'fukañi onek! Ni neska zaña ixatera elduko naz, urian...
- JAS. ¿Ixatera bakañik? Zeu mugariñik igaro edo pasau zara onezkero, Gergoretxu.
- GER. (*Asañez.*) ¡Olakorik! ¡Entzuteko be...
- EUS. Ez estutu, emakumiak, ondiño baten bat topauko dozube-ta... Otoi-egin eziñezko gauzak emoten ei-dauzan Eriñe Deunari, ¿bai?, ta beronek emongo dautzube biar' dozubena.
- SIM. ¡Ori baño ezpa'litz!... ¡Amaika otoi-egin eta amaika kandela imiñi ixan dautsagu Andoni Deunari! Baña zoritxaña daukagu, Eustaki. ¡Au amañu zan, ¿bai?, ta egiña eginda dago!
- DOM. (*Abots gogoñez ta amañuz.*) ¡Eztakit zer dala-ta orenbeste nega'ñ! ¿Zetarako gura dozube senaña?... Ni beintzat okotzeraño beteta nago. Moskoñik ekañten eztaun gabian, lebatz andija daka'ñ sorbalda-ganian. Eta gero erantzi be, norberak egin biar' ixaten dau, oera sañtuteko. ¿Ezkondu gura dozube? Ba... zato-bete ardao erosi ta ¡kiñu!
- JAS. (*Senañari begira.*) ¡Baña gixon gustijak eztira olakuak!

- DOM. Bai, danak dira ba'rdiñak. Gixonentzako emas-tegeirik mañena, moskoña ixaten da.
- BUR. (*Alari.*) Aña: ¿moskoña zer da?
- EUS. Gixonak moskoña yaukenian, egirik andijenak esaten yoezak. Eta ba'ruko griña txar'ak pa'ra-pa'ra urteten yakezak.
- SIM. Zu, Jasone, zori ona euki dau Miren-Bijotza'k, zeure semia lako muti'la senar'tzat ar'apatziaz. Ori oldozten (pentsetan) nago. Bera-lako muti'lik ezta aur'kitzen Dendar'iñe osuan, ez ingurubetako base'rijetan be. Muti'lik biar'giñena, bera da.
- DOM. Eta aberatsena.
- GER. (*Ilunez.*) Eta poli'fena.
- DOM. Eta bizko'fena. Jantzan egiñen daunian, ikus-ka'rija ixaten da ixan be. Eta ganera, buru-argija, tximistea baxen argija ta ariña.
- JAS. Miren-Bijotza'k be gusti ori ibazi (merezi) dau. Neskat'i'la ona, poli'fa, fiña... usain eder'eko la'fosa-lakoxia.
- DOM. Alaba baka'ra, aberatsa ta aña-bakua... Ezin le-teke geyagorik eskatu. O'rez ganera, ar'pegirik poli'fena dauka...
- BUR. (*Alari.*) Aña: ¿ar'pegija zer da?
- EUS. Begijakaz egijak eta abugaz guzu'rak esan yaruazan gauza biribil bat...
- JAS. Gorka, ezetariko griña txar'ik ez euki'teko, poli'tikan be ezta sar'tzen.

SIM. Ordu onian etxako zure semiari olako zora-keririk buruban sartu, oingo mutil gustijak mendigoxale egin diran aldi zorigaiztoko onetan... Orixe dala-ta-eztala, ¡amaika buru-auste sartu egin da bazteretan!

JAS. ¿Zer, ba?

SIM. Eztakit zer diran esaten dabe, ta gauñ Bilbao'ra jatsiko ei-dira, burukaren bat egiteko asmoz-edo. Oraintsu Beotibar'tarak, baña Aizelegi'tarak be abestuten (kantetan) igaro dira, iru koloreko txapel gorijakin apainduta. ¡Ama bat baño geyago ikusi egin dot negañez!

JAS. Oñek, abertzaliak edo dana-dalako oñek ei-dira.

GER. Bai, ta, zori txañez, gaste geyenak atzetik jauten yakez.

DOM. Alderdi ori txaña ezta... ¡Jayak egiten dabezanian, jaupa edo meza nagusijagaz asten dabez.

JAS. (*Gogoñ.*) Zerutik jatsirikua ba'litz be, ¡ut oñtik zorijoneko alderdijoi! Politika da, ¿bai?, ta politikatik alde-eginda obeto egoten da, bertan sartuta baño. Gure baseñjetan, atsekabia baño besterik eztago zoritxañeko politikiaz. Olako nastetan gure Gorka sartzen eztanezkero, bakian eta ederño bixi gara... Baña oñ dagoz markesaren maizteñak, auteskundiak (botaziñuak) datozezanian estu ta lañi

ibilten diranak. Batian semia batzokira dua-  
la ta eztuala, bestian, kanpora botako dabe-  
zala kanpotarai botua emon-ezik, jamaika  
buru-auste eukiñen dabe erukañijok! Guk egi-  
ñen doguna danok egin biarño leukie: politi-  
karik ez euki, ta kiñu. Bakia gustijakin: ori-  
xe da onena.

DOM. ¿Eta zeuk, Eustaki, zer deritxozu esaten do-  
gunari?

EUS. Zuzen-zuzen dagola Jasone. Ni euzkotaña naz,  
nai-ta-ez euzkotaña ixan biarñ dodalako. Eñi-  
ko irakasliak esaten daust, españaña nazala.  
Baña neuk erantzuten dautsat, gure elian (ber-  
betan) eztala egon españaña esateko itzik, eta  
oréxek argi ta garbi erakusten dauskula espa-  
ñaña enazala.

BUR. Aña: ¿nor da españaña?

EUS. Euzkerarik etxakijana.

BUR. Orézkero, Bilbao'kuak be españañak dira.

EUS. Bai, maña... Baña orék etxok esan gura ni  
abeñtzalia noñanik. Bakotxak bere zorua yar-  
abilk, esakun zañak yiñuan lez. Neuk be neure  
ustiak yaukadazak eta emen, kolkuan, gordeten  
yuadaz. Or goyan yagozan Gernika'ko are-  
txaren abaña ta gurutz ori neure ustiak do-  
zak. Euron azpiñik burutsik igaro edo pasetan  
nok beti ta orixe egiñen erakusten yautset se-



me-alabai. Baña nik etxuat gura onelako edo oñelako alderdikidiak ixan datezanik, ezta ardandegijan eztabaidaka egon eta gero kalian buñuka-egiñerik... Ez batzokikorik, ez ostantzekorik, etxequak bakañik ixatia gura yuat.

DOM. Eztakit, ba, eztakit... Mutilak, gastiak dira, ¿bai?, ta alako baten odolak eta gastetasunak bultz-egiñaz, bijotzak erakutsiko dautsen bidera joko dabe. (*Zutik jañirik.*) Tira, ba. Onezkerro, alde-egin biraño dot...

SIM. (*Jañirik.*) Geu be juango gara... Bijañ egun andija ixango da, ta zubek gauzak atondu biraño ko dozubez... Eñijan eztabil beste konturik, ezkontza au baño.

DOM. ¡Auxe ixango da ezteguba!

GER. Orñtik ziañ gustiñariko esamesak dabiltz. Esaten dabenez, ainbat gauza ta jai egongo da.

JAS. (*Año-año.*) Ez jaramonik egin, Gergoretxu, dan baño geyago be esango dabe-ta. Dana egongo da ondo, ori bai... Ezkontzea amañetan ixango da aldare nagusijan... ¡sekuleko ederñtoen! Argi gustijak biztuta, organuagaz ta gusti. Abadiak be jezañi ta jagi, jezañi ta jagi ibiliko dira, olako jai andijetan egin oi-dan letxe... Gero, bazkarija... Janari ona ta ugari ixango da: amalau gauza jateko-edo... Ardaua ta txakoli-

ña be zenbat-gura eukiko dogu... Eta aratsal-  
dian danok jantzara, txistu ta danboliñaren  
soñubaz...

DOM. Bijař egingo doguzan ijiji ta ajajak eztira ma-  
kalak ixango, bai seguru.

EUS. Eta zubek, Simone ta Gergoretxu, begi-zoli ibi-  
li birařko dozube... mirusairen batek arapau  
etzagijazan.

SIM. Ez ardurarik ixan, Eustaki. Onen-onenian  
atrapauko dogu uferatuten yakuna.

GER. Azkenengo briskia jokatuکو dogu bijař.

EUS. (*Burintxa'ri, begijak isten yakozala uarřturik.*)  
Koitaو au logura da.

BUR. ¿Lo-egitřia zer ete-da, ařa?

EUS. Jaungoikua'gaz egotia.

BUR. Neuk, ba, lo luze-luzia egin gurako neuke. ¿Ba-  
-dago, ařa, lo luzerik?

EUS. (*Ikaraz.*) Bai, Burintxa, bai-yagok lo bat luze-  
-luzia. Ořen luzia dualako, eztok iřoiz amařu-  
ten, bertatik ezkozak iřoiz be itxařtuten...

(*Itz onek esanda, ixilunia. Ixilune onen bilarřtian,  
baltzez jantziriko atso bat atatik (kanpotik) ziař igar-  
oten da, bařura begirada itxalak botaten dauzana. Bur-  
intxa zutindu ta adi-adi jařten yako, beraganařo  
juan gurako ba'leu lez. Atsua ayenatuten da.*)

JAS. ¿Nor ete-da atso ori? Iru bidař ikusi egin  
dogu berau emengo ingurubetan...





- EUS. Dendarine'kua ezta, ba.
- SIM. Ezta ingurubetako baseñjetakorik bez.
- GER. Ori, ezkontza-usañera etoriko zan eskekoren bat edo-da.
- DOM. Tira, ni ba-nua, iradu (prisa) naz-ta. (*Danok zutinduten dira.*)
- SIM. Agur, Eustaki.
- EUS. Agur, Simone, Gerikaitz'eneko andra ala'gun poliña zaranoi...
- GER. Agur.
- EUS. Agur, Gergoretxu, Momoitio'reneko klabelediña...
- DOM. (*Eustaki-ondoz igaruaz.*) ¿Neuretzako eztago ezer, ala?
- EUS. Bakixu, Domeke, Jaungoikua'ren aginduba zein dan: inoren emasterik gura ez ixatia. (*Burintxa'ri laztan bat eginda gero, iru emakumiok urteten dira atarte zabaletik, Jasone lagun dabela.*)
- EUS. (*Jagiten dalarik.*) Guazan geu be, Burintxa zeozer egiten. (*Gurutz eta abar-ondotik igarokeran, burustuten dira.*)
- BUR. (*Zurubilik gora duazan bilartian.*) ¿Eta ezkontutia zer ete-da, atatu?
- EUS. (*Zurubi-ostez eskutaurik.*) Emakumientzat, azkatasuna galdutia, ta gixonentzat, inoiz baño andijagua eukitia.

## II ANTZERKIJA

*Lenguak, Eustaki ta Burintxa ixan-ezik*

- JAS. (*Lagunai agur-egiñaz.*) Agur, ¿bai?, ta bijañ goxetik etori, masti-azpijan mayak iminten lagundu biraño nozube-ta, ezkontzea baño len...
- SIM. Bai, bai, etoriko gara, ta pozik egin be.
- JAS. Zu, Domeke, Ziziriko'renetik igaroten zaranian, bolanderak agindu egijozuz.
- DOM. Esango dautsat, bai.

*(Iru emakumiok alde-egiten dabe. Jasone sartu ta maira zuzentzen da, bertan dagozan eunak artuten, Aratsaldeko ixilian entzuten da urundik datoñen mendigoxalien abestija.)*

## III ANTZERKIJA

*Jasone bakañik*

- JAS. (*Sakon.*) ¡Onek donaz gastiak, zer gura yonen be etxakijenak! ¡Odol berua yauken zanetan oraingo euzkotañak!

*(Mendigoxalien abestija geruago gitxijago entzuten da. Basetxeko atartian GORKA mañalia agertzen da,*

*eguneko argiak argituta. Baseñitar gastia, luzia, sendua ta leñdena da. Arpegijan igarten yako pozik datoñela, iribañeka dago-la. Atartian geldilu egin da, abestija datoñen lekurantz begira.)*

## IV ANTZERKIJA

### *Jasone ta Gorka.*

GOR. Begira, ama. Mendigoxale geyago dira, Bilbao'ra jasten diranak. An gelditu egin dira, atsendena (deskantsua) artzen.

JAS. ¿Bilbao'ra zetan yuazak, ba?

GOR. Eztakit... Mendiko baseñi gustijetatik ara duaz... Gauza txaren bat-edo egin gura ezpa-dabe... Euron biarñuna orixe dala-ta-eztala, aberñiak ori ta geyago be eskatzen dauskula-ta... eztakit zer ta bai-dakit zer... Oñelako gauza batzuk esan daustez. Dana-dala, luñalde onetako muti gustijak Bilbao'ra jasten dira, piloka, txapel goñija buruban dabela.

JAS. Txoriburu oñek kalte andiren bat ekañiko yoeke baseñira. Ik ezegijoeke jaramonik egin. Amen. basetxian, nasayago ta obeto egoten dok, olako nastetan baño. ¿Elexan be egon az?

GOR. Ordu luze bi egin dodaz abade jaunagaz, ¿bai?, ta ezkontzarako gauza gustijak atonduta dagoz onezkero.

JAS. ¿Eta bestia?

GOR. ¿Zer besterik? ¿Autoñtu? Bai, andria. Konpeziño luzia ixan da. Jaupari arek dana jakin gura eban.

JAS. Jakiña, mutil. Igande - aratsalde gozuak, eromeri politak eta neskatila lirañak... Esakun zañak yinonez, "amuko ta iletiya alkañen onduan txañak dozak".

GOR. (*Ben.*) ¡Neu nago pozik bijaño, ama!

JAS. Nik be poz andija yaukat baruban, Gorka, Miren-Bijotza'gaz zorijontsu bixiko azalako. Bana bijañ arastian etxe onetatik alde egin-dagixubedian, malkuak be begijetatik jausiko yatazak.

GOR. Negañik ez-egiteko, oba ixango litzake emen lotutia ezkonbarijok.

JAS. Ez, mutil, onezkero dana atonduta yagok-eta. Miren-Bijotza'ren ama ona etoñiko dok bijaño gaba igaroten (*pasetan*)... Oñetarakoxe Maiten basetxe osua zubek bijontzako bakañik eukikozube. Aratsaldeko jaya amañuta, gura dozubedian, juan zindekeze. (*Jasone'k janzkijak ar-tzen dauz alde-egiteko.*)

GOR. (*Amesti, abots-erdiz.*) Geu bakañik... Bijotza ta bijok... baseñi-iluntziko bakian...

JAS. Gora nayuak gauza onek eruaten. Miren-Bijotza laster etoñiko dok... Zubek ondo dakixube



alkaři usaña artuten, jauparijaren erbi-txakurak baño obeto, antza. (*Ba-dua zurubilik gora eropa-moltzuagaz, ta gurutz-ondoaz igarokeran, Alearen egilen dau.*)

## V ANTZERKIJA

### *Gorka bakarik*

GOR. (*Bakarik lotuten da. Urun dagon mendigoxale-aldrak abesti bat abestuten dau, gitxika-gitxika urunagotu ta amañuten dana. Gorka basora begira dago, etxeke atartetik.*) ¡Ba-yatozak bariro menditik bera, nora jo etxakijela! ¡Alako zoruok! ¿Nun amañuko ete-yoek ibiltaldija, ikuñin eta txapel gorijakin eta gusti? Espetxian (kartzelan) ezpa-dok... I ezkondu adi, mutil, andikijak lez—esan yaustek—. Geuk aberijaren aldeaz jokatuko yuagu. (*Basora begira.*) ¡Basua yagok ederto! (*Oldoxtun.*) ¡Aberija!... Aberija... Etxakijat nik aberija zer duan. Eta Azkatasuna, gitxijago ondiño. Baña Miren-Bijotza zer ta zelakua duan (*arpegi alayaz*), ba-yakijat ondo. Eta amen, baruban (*bulañera esku-ba luzatubaz*) sentitzen yuadan zer au be ba-yakijat zer duan. Begijetara igon gura yausten malkuen antzekua dok. Eta malko onek bere

onduan bakañik legoñtuko yatazakala be ondo baño obeto yakijat. Emastegeyaren gomutiaz, luña be ezin ixaten yuat landu: ¡Atsegiñez gomutetan yuadaz senañ-emastegeyak gintzuazan egun arek! (*Gorka maira zuzentzen da, nora-  
ezian, eta bere ganian jezartzen da. Ametsa ba'  
litz lez, edesti malagari au edestuten dau.*) Uda-  
bañiko aratsaldia zuan, kerexaz ta sagañez be-  
terik yeguan Zaldañiaga-aldapako ortuban na-  
yenguanian. Zugatzak lora zuriz apaindata aur-  
kitzen zuazan eta ortzia (zeruba), oztin-oztin.  
Dana zuan bakia basuan, eta iturri-onduan bi-  
jok alkañegaz jezañi gintzuazan... Ortuba ixil-  
-ixilik yeguan eta etzuan ezer be entzuten. Geu  
be ixilik gayenguazan, zer esan ezkenkijala,  
baña alkañi botaten gayeuntsuazan begiradak  
alkañtuten gindubezan. Neuk begiratu nayeun-  
tsuan Bijotza'ri ta berak niri... ta oñetara lu-  
zaro egon gintzuazan, etxakijat zenbat aldi.  
(*Lotsaz, buruba makuñturik.*) Alako baten,  
gure espanak topau layuen ortu-ziañ galduta  
ebilan mosu bat. Axiak zugatzai bultz-egin...  
eta sagañondotik jausten zuazan lora zurijak  
gure mosubaren ametsetik iratzañtu gindube-  
bezan. (*Oldoñtun jañten da bañiro, luñera be-  
gira. Baltzez jantziriko atsua bide-ziañ dua,  
astiro-astiro. Gero atañte-onduan gelditu ta*

*Gorka'ri samuñez begiratzen dauza. Onak ez-tau atsorik ikusten, atzeko aldera begira dagolako. Gorka'ren oldozkunak Burintxa'k ausi egiten dauz, ariñeketa baten eta iñoren igeska, antza, datoñelako.)*

## VI ANTZERKIJA

### *Gorka ta Burintxa*

GOR. ¿Nora ua, mutil? (*Besotik eldu gura-dautsa.*)

BUR. (*Anayaren besoetatik iges-egiñik.*) Itxi egistak, atrapau enagijan. (*Atetik dua.*)

## VII ANTZERKIJA

### *Jasone ta Gorka*

JAS. (*Zurubilik bera jatsila.*) ¿Burintxa ikusi ete -dok?

GOR. Bai, atera juan biar ixan dau.

JAS. ¿Arapatzen ba-yuat demoniño ori, belarondoko galantak joko yautsadaz! ¿Bakik zer egin yaustan? Bijañko natilak otziñuten nayeukazan, eta ganeko kanelia miazkatuten etxuat aurkitu, ba? ¿Etxok astiñaldi makalik artuko, arapatzen ba -yuat! (*Burintxa'ren atzez dua.*)

## VIII ANTZERKIJA

### *Gorka bakarrik*

GOR. *(Bareka ta basuari begira.)* ¡Ortze ago, Maiten, areitz andiz inguraturik!... Bijañ añastian, basua lotan egon dañenian, eugana juango gozak Miren-Bijotza ta bijok... ¡Ainbat eskutapen iratziko dozak ire orma zañetan, Maiten!

*(Bidian ageñtzen da Miren-Bijotza, ariñeketan eta pozik datoñena. Baseñi-neskatila leñdena da: ule orija ta itxura poliña daukaz. Bizkoñ-bizkoña da. Bere arpegija, neschutz baten arpegija da. Espanetan beti iribaña agiri da.)*

## IX ANTZERKIJA

### *Gorka ta Bijotza*

GOR. ¡Bijotza!...

BIJ. ¡Gorka!... *(Alkañi eskuz eldu ta begiratzen dautsae, zer esan be eztakijela.)*

GOR. Zu, Bijotza...

BIJ. ¿Zer, Gorka?

GOR. Bijañ, ordu onetarako...

BIJ. Bai...

GOR. Ezkonduta egongo gara. *(Bijotza, bera begira*

*jar̄ten da.*) Añezkero, neuria ixango zara... (*Bi-jotza'k, lotsaren, oña igituten dau.*) ¿Baña zer dala-ta begijak bera erasten ete-dozuz?

BIJ. Eztot begirik erasten; luñera begira nago.

GOR. (*Samúrez.*) ¿Lotsa zara, ala?

BIJ. ¿Zeren lotsea, baña?

GOR. (*Bildúrez.*) Neugat̄ik edo...

BIJ. (*Lotsaren lotzaz.*) ¿Zer dala-ta?

GOR. Eztakit, ba.

BIJ. Oñezkero...

GOR. Neskat̄ilak, bakan-bakanak zarie-ta...

BIJ. ¿Zegat̄ik bakanak?

GOR. Bein baño geyagotan norberagaz ibili, ezetar-iko kezka-barik, eta egin-egiñian be, senaía egiteko orduba elduten danekoxe, bildúía ar-tzen asten zayakoze senaígeyari.

BIJ. ¡Jakiña! Bildúía edo zeozer euki biaí. Senaí-geyak eíaz ta eúrez eukiñen doguz; senaía, ba-ña, bat... edo bapez... Oñez ganera, senaía eu-kiñia gauza itzala da. Ostera, senaígeya eukiñia, olgetako baño ezta geyenetan ixaten.

GOR. Senaígei-aldija ezta gogaikaíija ixaten, egijaz, baña neu beti euki nozu ben-ben.

BIJ. Bai, ba... Gauza bat da bareka ta gogaro (umor-e) onagaz ibiltia ta beste bat azartuba ixatia. Zeu beti ixan zayataz lotsagaldukua, esku ari-ñegijak euki dozuzana.



GOR. Koñadak zeozer egin biar ixaten eben, eurak sañtuteko be práketan sakelik eneukan-eta.

BIJ. (*Agintari.*) Ezkondu-árte beintzat, atsegin ixaten yataz neuri, práketan sakelak daukezan senařgeyak. Gero, ikusiko dogu, eropia atondu biarño dautzudana neu ixango naz-ta.

GOR. Zu buperea ta bañiketa-zalia ixan zara beti, ¿bai?

BIJ (*Asaře.*) ¿Buperea neu? ¿Eta bañiketa-zalia, ganera? ¡Esateko be! ¿Eta min lotsabako orégaz esanda daukastazuzan gauzak? ¡Arexek dira esatekuak! Arek, bai, sakela biarño eben... Min ariña... esku ariñak... zeu beti ariña, etxera juateko ixan-ezik. Orduban ni arin eta zu beti nire atzetik, maukatik tiraka... Ari asko biar ixan dot maukaen tañatadak josteko.

GOR. Ori mañetasuna da, Bijotza.

BIJ. ¿Mañetasuna diñozu? Zubeak, gixonok, edozein lotsabakokeriri mañetasuna eristen dautsazube... Lañi-aldi galantak ixaten nebazan etxeratuten nintzanetan. Amak beti esaten eustan: “Gaur be tañatada bat dakazu.” Eta ni beti guzuñaz: batian sasijak zirala, beste baten eromerijetako estubaldijak, urenguan elexako sakristauak gogor tiratu eustala besotik arñija (silia) erabilteko ordaindu biarño neban txakur txikija eskatzen... eztakit zer ta bai-dakit zer. ¡Ene! Ba-

ña jayegunetan, etxetik urtetian, amak beti esaten eustan: “Kontuz ibili gero Gorka’gaz, oso okera dalako.” ¡Begi zoli! Baña begi bi, ezta beso bi be, eztira naikuak zeugandik azke (libre) ibilteko, espan lotsagalduko ta beti kiñuka dabilzan begi oretatik alde-egiteko, orenbeste maltzurkeritik aldenduteko. Baña ikusiko dozu bijartik añera nok eukiko dauzan min ariña ta esku ariñak, baña espanak eta...

GOR. (*Bijotza’gana ureratuz, malasunez beterik.*) Ez jaramonik egin, Bijotza, begiak zeuri bakarik begiratzeko eukiko dodazalako. Eta geldi-geldi lotuko dira, lotan egon zaitezanian. Belarriak zeuri bakarik entzuteko eukiko dodaz, ta besuak zeu zainduteko, bildur ixan zaitezanian eta laztanduteko, otzik euki dagixunian... Eskubok zeuretzako lan-egiteko egunez, gero aurrepegiya ukututeko, ase-ase egin-arzte... Eta espanak erabiliko dodaz, bijoen arteko penarik ilteko. Bañe-egingo dot, zeu pozik egon zaitezanian. Itunik ba-daukazu, niri esan, neu be itun jarzteko. Onetaraxe ederito bixiko gara, loratan dagozan sagarak egingo dabezan abestijak entzuten. Egun zorijontsu baten, Jaungoikua’k gura ba-dau, bijok ixango gara gurasuak. (*Bijotza’k buruba makurtzen dau, ta Gorka’k, bereganatuta, malasunez ba-dirautsa:*)

Maiten'i begira nenguan etoñi zaranian... ¡Bijotza! An beti bixiko gara bijok alkañegaz. Bijañko jaya amañuta, bertora juango gara bijok bakañik... Basua poliñuago dago udabañijan, eta udabañija ta iluntzija edeñaguak ixaten dira, alkañen mañasunez, geu letxe, bixi diranentzat. (*Gorka'ren itzaldija austen dau Jasone ta semiaren sañtutiak.*)

## X ANTZERKIJA

*Jasone ta Burintxa sañtzen dira*

JAS. (*Sañturik.*) ¡Geldi-geldi egon bijañko dok orain emen! ¡Igesik egiñen ba-dok, ikusiko dok!

*(Burintxa ariñeketan dua Bijotza'gana.)*

BIJ. (*Mañero añtubaz.*) ¡Kaxo, Burintxa! (*Mosu-dagitsa.*)

JAS. Ezegijozu koipekeririk egin, ez. ¡Bijañko postre gustija jaten egon ezta ba!

BIJ. ¿Egija dok, mutil?

JAS. Kakanañu oñeri itxi egijozu, ¿bai?, ta laztan sendo bat emoistazu, Bijotza. (*Mosu zaratatsuba egiñen dautsa, Bijotza'ren añpegija ukutu ta beroni begira.*) ¿Ze añayo egingo ete-eban zorijoneko Gorka oñek, onelako añpegi poliña



daukan neskatilea artuteko?... Zu, Bijotza, ekañi daustazuz gauza orek?

Bij. Ez, ba. ¡Niria da buru txarra!... Ointxe nua euron bila ariñeketa baten. (*Arin dua, Burintxa atzetik duakijola, gero atartian gelditzeko.*)

## XI ANTZERKIJA

*Eustaki sartzen da*

EUS. (*Zurubilik bera jasten dala.*) Zorijoneko mai ori ezin dot, ezetara be, konpondu. Erenka dabil, ¿bai?, ta bjar dingili-dangalan egiñaz, pitxarak, ardaua ta dana jausiko da luñera.

JAS. Arin atondu leñeke ori... Anka-azpijan izparingi (periodiku) bat tolostuta imiñi ta ¡kitu!

BUR. (*Aletik.*) Aña, aña, ba-dator bañiro lengo zorgiña. (*Ikaratuta, sartzen da mutila.*)

## XII ANTZERKIJA

*Lenguak eta Atsua*

(*Atsua agertzen da. Atartian gelditzen da, bañura sartu-guraz, antza. Ixilune ikaragarria. Gorka tente jarren da, atsuk eratorija bai'litzan, eta Burintxa ala-onduan eskutetan da. Emakume zar-zara da, luzia, txairo ibillan dana. Andera andikijen itxurea dauka ta bur-*

*utik oñetara baltzez jantzila dator, estalgai luze-luziaz. Arpegi zurija dau. Ortosik dakazan oñak eta eskubak be zurijak dira. Begi ederetan malko bi daukaz, dardar-egikeran ikatzañijak dirudijenak. Makila eskuban dakañala, atian gelditzen da. Eztau ezer esaten; muluba dirudi. Ukabilagaz iru bidar joten dau añijan, deika ba'lego lez.)*

JAS. Bañura sartu zaitez, amamatxu, Ganboa'reneko atia etxako eskekuai inoz isten-eta, batez-bere gauñ lez bañuban poz-alaya ba-dago. (*Atsuak auñera egiten dau, alde gustijetara ta Gorka'ri begira.*)

ATS. Ba-nekijan nik Intxaurnaga'tar Eustaki, Ganboa'tar Jasone ta euretañak bixi diran basetxia, darentzat zabalik egoten dala beti...

BUR. (*Alaren iztar-ondora elduta, ixilian dirautsa.*)  
Aña, aña... Gure ixenak be ba-dakiz onek. Zor-giña da, antza. (*Eustaki'k, kiñuka, dirautsa ixilik egoteko.*)

JAS. I, Gorka, laratzu-onduan arki bat ezañi egijok, txingañ-aldian berotu dañen... ondiño basuan otz-samañ yagok-eta.

ATS. (*Jezañirik.*) Otzak eztaust ardurarik emoten... bixitz onetan sañi egon naz dardarez... Orixe dala-ta enau bape ikaratzen dardar-egitiak. Gorputza zaña danian, eguzkitan ba-dago be

dardarez egoten da... Ilten danian bakarik atsedena (deskantsua) aritu daike.

EUS. (*Abo-pian.*) Beroni entzunaz, edonok esango eban lamiña dala...

ATS. (*Gorka'ri.*) Érekaldian nenguanian ikusi zindudazan. Arpegi alayaz ta oinkada ariñaz ziñoyazan.

GOR. Neuk eneban, ba, iñor ikusi.

ATS. Gastien begijak eztabe atsorik ikusten... Éreka-ko uragaz oñetako odola garbitzen nenguan...

GOR. ¿Odola diñozu?

ATS. Bai... ekañi dodan bidia, estu-estu, arantzaz, sastrokaz ta arkatxez beterik egon da... Bein baño geyagotan zoztoñ bategaz jo ta jausi egin naz.

GOR. ¡Érukañija!

JAS. Ortosik ibili biar ixatia be...

EUS. Artulezko galtza batzuk eta abarñka zarak beba-daukaguz orñ ta ekañiko dautzudaz...

ATS. ¡Ezta! Ortosik ibiltia da nire biarñkuna... Igaroten nazan bidian itxi gura dot nire oñutsen loñatza, atzetik datozeanak jakin dagijen, negarñez igaro zan atsua nundik nora juañ zan...

GOR. ¿Eta zertzuk ete-dira oñetan daukazuzan loñat-zok?

ATS. Estuntzaen (katien) loñatzak.

GOR. ¿Katerik daruazu, ala?

ATS. Estuntza onek eztira ikusten, baña egiñen dabezan kaltien loñatza izten dabe.

- JAS. (*Albora.*) Ia andra au espetxetik iges-egifnikua ete-dan...
- GOR. ¿Nekatuta zagoz?
- ATS. Bai, gorputzez... baña gogua gaste daukat ondiño.
- GOR. ¿Urunetik zatoz?
- ATS. Urun-urunetik... Ibilijak ibili eginda nago, nora jo eztakidala. Nire ibiltaldijak eztauke asikerarik, ez amairik...
- EUS. (*Jasone'ri.*) Au burutik eginda dago, antza denez.
- JAS. Goserik ezpa-dauka... Talo-apur bat eskeñi egijozu.
- EUS. (*Atsuari.*) Talo-apur bat jango zenduban, ¿ezta?
- ATS. Ez, eskarik-asko.
- JAS. Orezkero, esnia artuko dozu. Edera daukagu, bai bein. Etxeko beyak erapiak bete-beterik daukez bijaño.
- ATS. Ez... Egarri bai-naz, benetan, baña onena dan esniagaz ez gozuenan dan uragaz kentzen eztan egarrija da neuk daukadana... Gose be gose-naz, baña ogijaz asetuten eztan gosia... Bijotz gastien gosia da neuk daukadana ta matasun egarrija da nire egarrija. Geure odolaren odol-egarrija da, ixan be, baruban sentitzen dodan egarrija.

- JAS. (*Albora.*) ¡Añearen eta Semiaren!... ¡Onek esaten dauzan gauzak, bañegaríjak, añu-eziñak dir-a, noski! Erúkaríja zorua da, zororik ba-dago iñun.
- BUR. (*Añari.*) Aña, Bijotza'k emon daustan dirutik, iru txakur' andi emongo dautsadaz. (*Atsuari luzatubaz.*) ¡Eutsi!
- ATS. Ez, mañia. Txindi ori gorde egik iretzat. ¿Zelan daukak ixena?
- BUR. (*Diruba bañiro emon-guraz.*) Eutsi, eutsi, zeuretzako da-ta.
- ATS. Ez, Burintxa; gorde egik diruba... Nik etxuat txindi-biañik. Neuria egiten duan gixonak, bixitz osua emoten yaustak.
- GOR. ¿Bixitza?
- ATS. Bai, bixitza. Eta zenbat eta gastiagua ixan eta bijotza mañasunez betiago eukiña pozañen bixi danian... ordubantxe osoruago ta pozago emoten daust. Orezkero, espanakin mosu-egiten dautsat lo daukazan begijetan eta bekokijan ezilkoñaren burestuna (koroia) ezañten dautsat.
- GOR. ¿Geyagorik be eskatzen dautsazu?
- ATS. Eztautsat iñori ezer be eskatzen. Ukututen dodan bijotzari, bakia kentzen dautsat. Bertotik igaruaz nire usaña izten dautsadan etxiari, artegatasuna ekañten dautsat.

JAS. (*Albora.*) Andra au edo Zaldiba'rik dator edo Zaldiba'era dua.

BUR. ¿Baukazu etxerik?

ATS. Erdu ona, Burintxa. Neure edestija esango dauskat. (*Beraganaturik.*) Atso erukañi onek basetxe zuri-zurija layeukan. Basetxion leyo orlegijak yeguazan eta goyan telatu goñi-goñija layeukan, eguzkitan dis-dis egiten yuana... Alako baten, inguruban yebilkijozan arrotzak indarrez sartu zuazan basetxera ta atso erukañijau bertotik jauñti yuen.

GOR. ¡Andra gaxua!

JAS. (*Albora.*) Au politikan sartuta ibiliko zan, ¿bai?, ta orregatik ugazabak basetxetik botako eban.

EUS. ¿Eta solorik ba-daukazu?

ATS. Eguzkija bera baño edereguak zuazan; sei solo nayeukazan: Laburdi ta Zuberoa, eurretan entzuten diran abestijak baño alai-politaguak zuazanak; Bizkaya ta Gipuzkoa, euren itxaso zabaleko atxetan jotiaz bits zurija egiten yuen uin (olatu) andijakaz; Nabaña arkaitz oyarñtsu ta aran leunak yaukazana; Araba, txiruen-apalena dalako geyen mañe nayuana. Dan-dana ostu yeustaen len añaturiko arrotzak.

BUR. (*Bixiro.*) Kendu egijezuz zeuk orain.

ATS. Ezin yuat, indarrik etxuat-eta, baña seme alabak







lengo basetxia ta sei solo edeñok atzera ekañi-ko yaustezan eguna be elduko dok, mutil.

JAS. ¿Eta seme-alabaok zer egiñen ete-dabe, amagaz gogoratu-barik?

ATS. Seme-alabak galdu egin yataz.

JAS. ¿Danok?

ATS. Eurretari-ko batzuk, bide-ziañ itxi dodan loñatza ezagutu egin dabe ta nire bila dabiliz. Beste batzuk, ostera, ondolik igaroten yataz ta enabe ezagutzen... Bestiak... ¡bestiak obe jayo ezpañ litzaz! Ama nabarik be eztabe gura esan. Beste batzuk dagoz, Gorka, idoroko (topauko) nabarik, laster idoroko nabarik...

GOR. ¿Zeugaz topo-egiñeko zer egin birañko ete-dabe?

ATS. Dana laga egin birañko dabe nigatik... Semiak, oian, gexorik, datzan aña... Añak seme-alabak itxiko dauz... mutil ezkonbaniñjak be emaste bariña laga birañko dau...

GOR. (Joranez.) Esan, andria, ¿gañ gabian nora zuaz?

ATS. ¿Orñ, basuan dagozan mendi orñek ikusten dozuz? Bide-zidorñ orñetatik sarñtuko naz gero, uri andira joteko... Baña pozik nua. Etxat gañ begijetatik beste malkorik jausiko, añatsalde onetan abesti pozkaniña entzun dodalako, seme-alabaok nire bila ba-datorñkidazala esaten dautan abesti mañagañiña.

- JAS. ¿Baña eztozu len esan, seme-alabak mañe etza-  
ñubenik?
- ATS. Bijotzez mañe nabe, neugaz zoratuta dagoz.  
Amatzat ezautzen nabementzat, eztago neu baño  
ederagorik...
- JAS. (*Albora.*) ¡Ezta oñenbesterako! Nañuba tximuñ-  
ez beterik euki ta olako amesak...
- ATS. (*Dardarez.*) Beti dagoz neugaz oldozten (pen-  
tsetan). Neugaz ames-egiten dabe... Neugañik  
egiten dabe lana; nire ixena darabile basuan  
eta kalian... Neu goralduteko abestijak egiten  
dabez... Neugañik edozer egiteko gertu dagoz.  
Azkatasuna neugañik galdu dabe... Eta odola  
bera be sañi eskeñi egin dauste.
- GOR. (*Joran andiz.*) ¡Zañá dirudixun andra oñek  
esan egistazu nor zaran!
- ATS. (*Abots gogoñez.*) Len ba-neukan ixen bat eta  
beragaz seme-alabak ereisten eusten... Baña  
gero aiztuten asi ziran eta ezeusten ixen oñegaz  
eristen... Ixenoñ ez-entzunaz, neuk be aiztu egin  
dot... Orain bilatuten naben seme-alabak, asañ-  
atu ta gusti egiten dira nire ixena dala-ta. Bi-  
ñañtian, bidez-bide dabil atso eñukañi au, bur-  
uba ezañteko añirik, ez gorputz zañari berorik  
emoteko etxerik eztaukala... Solorik be ez-  
tauka, añatsaldeko eguzki epelik añtu al-ixa-  
teko... Oñegañik, neure seme-alabaok ikusten

ba-dozuz, esan egijezube emetik igaro zala negaréz joyan atsua. Esan egijezube, beronek esanda eukala, galduta ebiltzan seme-alabaen ama zala... Esan egijezube, ama idoroten ba-dabe, lengo basetxia beroni emoteko, baña arotzez garbituta, ortu ta baratz orlegijak lora goñi-zuriz orniduta.

EUS. ¿Eta nungo bidez zuazan iñanduko ba'leuskube?

ATS. Eztatuzube olakorik iñanduko, bide -erakuslia bijotza dabelako.

*(Au esaten dau, urundik datoñen eta entzuten asten dan mendigoxale-abestijari adi-adi. Atsua zutunik jañi da, arpegija goñi-goñi eginda. Gorka, luñian jeariñta eguana, astiro jagiñen da, atsuari begira, zoraturik bai' leguan. Au atera zuzentzen da, urengo duazan itzak esaten dauzala. Abestija urundik datoñ.)*

¡Entzun! Ba-duaz nire bila, eskatu neutsen guda-abestija abestuten. ¡Entzun! Ba-duaz, neugandik alde-eginda egozan bijotzak iratzañtu ta irabazten... Negaréz, emetik igaroten ikusi niñduben... ¡Bakar-bakarik niñoyan! Zeru urdiña baño beste gozagaririk eneukan... Baña malko mingotsok luñ onian jausi ziran... eta erne egin dira. Berbizkunde-eguzkiñan, sabelaren lora-azija... ¡Atsuak negar-egin dau ta sen-

do egin be! ¡Atsuak negar ta negar egingo dau, itxurik dagozan bijotzak itxañtu-arte. Neure begijok, orduban, areitz-azpijan, mañasunez ta bakian, lo gozua egingo dabe.

*(Atsua ayenatuten da.)*

### XIII ANTZERKIJA

*Lenguak, Atsua ixan-ezik*

*Gorka utsik dagon atiari begira dago, zoro-antzez ta berari dei-egiten datozen mendigoxalien abestija entzunez. Jasone, Eustaki ta Burintxa ikaratuta dagoz.)*

GOR. *(Abots lariz.)* ¡Zu, andria, itxaron pizkat!... ¡Nor ete-zaran esan egistazu!... ¡Zure ixena jakin gura neuke!

JAS. ¡Zoro bat, Gorka, etxian yaukuagun zoriñona ostu gura yauskuban atso zorua!

GOR. ¡Zorua ez!... Alatzak (mirarijak) egiten dakiñan deunaren antzera negarrez igaro da-ta.

EUS. ¡Baketu añe, mutil! ¡Bijotza'k zer esango ete-layuan, emakume bategatik itxura onetan ikusiko ba'indu!

GOR. Ez, aña, ori ezta emakumia... Bere begiradak bañu-bañuraño sañtu yataz... Ondiño be bere begijak begiratzen nabe... eñeten nabe... bere atzetik eruango nabe...

EUS. (*Albora.*) ¡Begizko-egin dautsa zorgin orek!  
¡Begizkua!

JAS. (*Eskubagaz, zemati.*) ¡Atso madarikatuboi! Gan-  
boa'reneko bakia ostu egin dauskuzu, zitaloi.

(*Atsuaren abotsa bañero entzuten da, urun baña, ta  
danok geratzen dira ixilik, bildur-ikaraz:*)

¡Erne egin da Berbizkunde-eguzkitan, sabe-  
laren lora-azija! ¡Atsuak negar-egin dau ta  
sendo egin be!... ¡Atsuak negar ta negar egingo  
dau, itxurik dagozan bijotzak itxañtu-arñe!

(*Atsuaren azkenengo itzok, geruago ta obelo entzu-  
ten dan mendigoxalien abestijaz batuten dira.*)

GOR. ¡Neuri dei-egiten daustan abotsa da! ¡Dei-egi-  
ñen daustan abotsa da!...

JAS. (*Alderik egin ezlagijan, Gorka'ri eldurik.*) ¡Gor-  
ka, ene semia! ¡Miren-Bijotza'gaz gomuta añe!

GOR. (*Amagandik igeska.*) ¡Ez! ¡Mañasunaren mañ-  
suna-bila nua!...

## XIV ANTZERKIJA

*Eustaki, Jasone ta Burintxa.*

(*Gorka atera dua, arin. Amak deika, sorbalda-ga-  
nian daruan blusatik elduten dautsa. Gorka'k jantzijoi*

*laga ta alde-egiñen dau, Jasone'ren eskubetan semiaren jantzija geratzen dala.)*

JAS. (*Semiari deika, etzirik.*) ¡Gorka!... ¡Gorka!...

EUS. (*Amuñu bixiz, txapela luñera jauñtirik.*) ¡Oi, Zugarámurdi'ko zorgin madarikatuboi!... ¡Zegatik igaro ete-az Dendariñe-aldetik?

## XV ANTZERKIJA

### *Lenguak eta Bijotza*

BIJ. (*Ariñeketan eta zoraturik sartzen da.*) ¿Nora ete-dua Gorka, orñen arin, zoro baten antzera? Ezagutu be enau egin ikusi naunian.

JAS. (*Ilun.*) Berak be zer dan eztakijan ames baten bila.

EUS. (*Jasatasunez.*) ¡Miren-Bijotza! ¿Ona zentozan nian eztozu bidian atso bategaz toporik egin?

BIJ. (*Bijotz-ikaraz.*) Eztot besterik ikusi, edeñ-edeña zan neskatila bat baño, bakandera (eñegiña) baten antzera joyana... Eñiko gastiak bere atzetik joyazan, sutsu abestuten... (*Mai-ganera, negañez, jausten da.*)

(*Astirotxu ureraluten asi dan mendigoxalien abestija, orain edeño entzuten da. Bidetik igaroten ikusten dira. Gañ andijagaz, txapelak gora botaten dabez antzertoki-barñtik igaroten diranian. Baseñiko neskatila*

*gastiak, abeska ta sanizoka, alkañi eldurik duazanak, lagun-egiten dautsie. Mutiko koskañak be mendigoxalien atzetik duaz. Neskato batzuk besuetan daruez ume txikijak.*

*Baña Ganboa-basetxe-bañuba ilun dago. Burintxa'k, baña, arpegi alayaz, alegiñak egiten dauz atagandik alde-egileko, aberijaren deyari erantzunaz mendigoxaliakin juateko. Aleak eztautso izten.)*

#### ANTZEZTOKI-OYALA





*Manuel de la Sota y Aburto*


---

# LA VIEJA QUE PASÓ LLORANDO

LEYENDA DE PRIMAVERA

inspirada en el «KATHLEEN-NI-HOWLIHAN»

del poeta irlandés W. B. YEATS.





“Una noche tuve un sueño, tan luminoso y preciso que no parecía sueño. Soñé en un rico caserío: en él, junto al fuego del llar, se hablaba de una futura boda a celebrar. Y apareció de pronto la figura de una anciana enlutada. Era la misma Eireann, aquella Kathleen-ni-Howlihan, cuyo recuerdo ha inspirado tantas canciones y ha creado tantas leyendas, y por cuyo amor tantos hombres han caminado a la muerte.”

*(Fragmento de una carta de W. B. Yeats a Lady Gregory.)*



## PERSONAJES

LA VOZ DE DEADAÑ.

EUSTAQUIO DE INTXAURÁGA, aldeano rico.

ASUN LA DE GANBOA, su esposa.

BURINTXA, el hijo más joven.

GORKA, el hijo mayor.

MIREN-BIJOTZA, su prometida.

GERGORITXU LA DE MOMOITIO, *neska-zar* que querría estar casada.

SIMONA LA DE GERIKAITZ, viuda que desearía estar casada.

DOMINIKE LA DE GOPEGI, mujer casada que querría estar soltera.

ANCIANA MISTERIOSA QUE PASA LLORANDO

